

# Jaungoikoa akusatuen aulkian

CENTURY Co



Ezkerrean, Anatoli Lunacharski (1875-1933) Jaungoikoaren aurkako epaiketara deitu zuen komisarioa. Eskuinean, boltxebikeak indar tsaristen aurka tiroka, 1917an, Petrogradoko kale batean; hurrengo urtearen hasieran tiroak airean gora botako zituzten, Jaungoikoaren aurka.

MOSKU (SESB), 1918KO URTARRILAREN 16A. Iraultza boltxebikea gauzatu eta tsarren agintaldia abolituta, erregimen leninistak hasieratik bere boterea erakutsi nahi zuen, maila guztietan. Anatoli Lunacharski dramaturgoa, literatura eta arte kritikaria eta politikari komunista *Narkomproseko* (Instrukzio Publikorako Herri Komisarioratzako) arduradun izendatu zuten, eta komunista guztiak irrikaz itxaroten zuten epaiketa abiatzea lortu zuten.

Auzi gelaren albo batean, Estatuko fiskaltzaren ordezkariak zeuden, epaiketa irabazteko ziurtasunak adoretuta; akusatuen aulkian Jaungoikoa egon behar-ko zukeen, baina epaitegian ez agertzea erabaki zuten, nonbait, eta haren ordezkari moduan Bibliaren ale bat ipini zuten.

Jendez gainezka dagoen gelan isiltasuna nagusitu zen fiskala Jaungoikoaren aurkako karguen zerrenda luzea ozen irakurtzen hasi zenean: genozidioa, gizadiaren aurkako krimenak... Eta froga gisa askotariko testigantza historikoak aurkeztu zituen. Ondoren, defentsako abokatua bezero ahalguztiduna defendatzen saiatu zen,

hainbat zertzelada aringarri aurkeztuz: Jainkoak nortasunaren nahasmendu zorrotza eta dementzia larria omen zituen. Baina epaimahaiko kideek ez entzunarena egin zuten; absolutioaren aukera ez zuten kontuan ere hartu. Epaitzen ari ziren krimenak oso larriak ziren, salaketa sobietar herritarrengandik etorri zen eta, horrenbestez, auziak gizadi guztia babestea zuen xede. Eta epaia eman artean, akusatuak ez zuten txintik ere esan.

Epaiketak bost ordu iraun zuten, eta epaia garbia eta irmoa izan zen: Jaungoikoa egotzitako krimen guztien erruduna zen. Biharamun goizean fusilatuta hiltzera kondenatu zuten, zigorra atzeratzeko edo apelazioetarako aukerarik gabe.

Hala, 1918ko urtarrilaren 17ko goizalde hotzean, zehazki 6:30ean, Jaungoikoaren aurkako heriotza zigorra exekutatu zuten, baina kondenatuak, berriro ere, agertzeari uko egin zionez, metrailadoreek bost tiro jasa bota zituzten airearen kontra, bateren batean asmatuko zutelakoan. ■



## Arrastoak

### Estoldetako arkeologia

ANTONIO ZAMBARDINO



ERROMATAR FOROAREN azpian sartu da arkeologo, espeleologo eta ingeniari talde bat, *Cloaca Maxima* delakoa, ezagutzen den estolda sare publikorik zaharrena, aztertzeke; K.a. VI. mendekoa da lurtzortik hamabi metrora dagoen estolderia.

Ikertzaileek Lucius Archeorobot izeneko ibilgailu anfibioaren lagun-

tza dute, gizakia sartzen ez den galeria estuak lehen aldiz aztertu ahal izateko. Patrizia Fortini proiektuaren arduradunaren esanetan, “Luciusen datu objektiboek lur azpiko mundu honen ezagutza berria eta xehea eskainiko digute”, erromatar zibilizazioaren oinarriari buruzko ezagutza, literalki. ■